

**ALEJANDRO EZKURDIA, OFM**  
(1902-1979)

Orio-n (Gipuzkoa) jaio zen eta Zarautz-en hil, Natibitate bezperan (Abenduak 24). Frantziskotarra.

Gizon zehatza, isila; bere bizitzarik gehiena natur zientziak irakasten eman zuen, bai Nafarroako Erriberrin (Olite) eta bai Arantzazun. Bietan kantari taldearen zuzendari izan zen; Arantzazuko Kolejioko mutikoen Erretore ere bai. Aranzadi elkartearen bazkide.

Hartako gai bazen ere, ez zuen askotzarik idatzi.

“Jentillen paso-lekua en Aitzabal-Aranzazu”, *Munibe* (1953), 18.

“El pastoreo en la zona Urbia-Oltze”, *Anuario de Eusko-Folklore XV* (1955), 161-166 (Aita Jose Ignacio Lasarekin elkar lanean).

“El nuevo Colegio Seráfico de Aranzazu”, *Cantabria Franciscana* (1961), 71-77.

“Notas sobre el empleo del patronímico en Orio (Guipúzcoa) en los siglos XVI y XVII”, *Euskera* (1978), 59-68.

Esan behar da lan hau hasiera edo lehen urratsa besterik ez zela, azterketa luzeago eta osoago baten hasiera. Horretarako luzaz esku artean izan zituen Orioko eliz liburuak, eta fitxa eta kuadernoetan zehazki kopiatuak utzi ditu hango xehetasun guztiak. Joan mendeetan agertzen diren izen-abizenak estudiantu nahi zituen, estudio horretatik atera daitezkeen ondorioak ateratzeko asmoz. Damurik, gaisotasunak eta heriotzeak lan hau bururatzea galerazi dio. Fitxeroak eta kuadernoak jasorik daude, eta gertu, hark egin ezin izan zuena bestek egin nahiko baldin balu.

Aita Ezkurdiari buruz ikus, baita ere, *Aranzazu* (1980), Otsaila.

*Fr. Luis Villasante*